



Etxebarria

8

LANBIDE HEZIKETARAKO Materialak

**ESKU-HARTZE
KOMUNITARIOEN
METODOLOGIA**

Euskara Zerbitzua
Ikasmaterialak

Toribio Etxebarria
Lanbide Heziketarako Materialak

8

Esku-hartze komunitarioen metodologia

Jesús del Río Aldasoro

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2003

RÍO ALDASORO, Jesús del

Esku-hartze komunitarioen metodologia / Jesús del Río Aldasoro. — 1. argit. — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003 or. ; cm. — (Toribio Etxebarria. Lanbide Heziketarako Materialak ; 8)

ISBN 84-457-2046-5

1. Talde-dinamika. I. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. II. Izenburua. III. Bilduma. 316.45

ARGITARATUTAKO IZENBURUAK:

1. Prototipo elektronikoen garapena eta eraikuntza
2. Finantza kudeaketa
3. Giza baliabideak
4. Kultur animazioa
5. Analisi kimiko eta tresna bidezkoa
6. Laborategiko antolaketa eta kudeaketa
7. Farmazia- eta parafarmazia-produktuen prestaketa
8. Esku-hartze komunitarioen metodologia

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2003-10-01)

Argitaraldia: 1.a, 2003ko urria

Ale-kopurua: 600

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.euskadi.net

Egileak: Jesús del Río Aldasoro

Hizkuntza zuzentzailea: Koro Agote

Azala: Jesus Iturriza

Fotocomposaketa: RGM, S.A.

Inprimaketa: RGM, S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2046-5

L.G.: BI - 2.856-03

Esker onez

Eskerrak eman nahi dizkiot
Koro Agote Ugartemendia irakasleari eskaini didan laguntzagarik
«Nahiko hunan, Beatriz, ...»

AURKIBIDEA

1. METODOA ETA METODOLOGIA	9
1.1. Metodoa eta metodologia	11
1.2. Metodologia-sistema	12
1.3. Errealitatearen azterketa	13
1.4. Errealitatearen azterketa egiteko teknikak	16
1.5. Planifikazioa	20
1.6. Planifikazioa egiteko teknikak	23
1.7. Ebaluazioa	26
2. ESKU-HARTZE KOMUNITARIOAREN UNEAK	29
2.1. Ikastekoa eta ikertzekoa	31
2.2. Entzutekoa eta norbanakoaren arazoak jasotzekoa	33
2.3. Lehenengo esku-hartzearena	34
2.4. Ohiko esku-hartzearena	36
2.5. Eskualdeko esku-hartzearena	38
3. ESKU-HARTZE KOMUNITARIOARENTZAKO BALIABIDEAK	39
3.1. Informazioa	41
3.2. Ikerketa	43
3.3. Dokumentazioa	44
3.4. Koordinazioa	45
3.5. Planifikazioa	47
3.6. Ebaluazioa	48
3.7. Formazioa	50
4. BIBLIOGRAFIA	53

«Zailtasunak aukera bihurtu, hortxe dago koska.»

PAULO FREIRE

*Metodoa eta
Metodologia*

1

AURKIBIDEA

1. METODO ETA METODOLOGIA	9
1.1. Metodoa eta metodologia	11
1.2. Metodologia-sistema	12
1.3. Errealitatearen azterketa	13
1.3.1. Errealitatearen azterketa egiteko prozedura	13
1.3.2. Beharrak, interesak, baliabideak eta aukerak ezagutu	14
1.3.3. Lehentasunak	14
1.3.4. Proiektuaren oinarriak	14
1.3.5. Arazoa mugatu	15
1.3.6. Proiektua kokatu	15
1.3.7. Bibliografia aztertu	15
1.3.8. Biztanleak ezagutu	15
1.4. Errealitatearen azterketa egiteko teknikak	16
1.4.1. Ikerketa orokorra	16
1.4.2. Eztabaida-taldea	17
1.4.3. Etorkizuna	17
1.4.4. DELPHI teknika	18
1.4.5. Giza adierazleak	19
1.4.6. Baliabideen inbentarioa	19
1.4.7. Arazoen zundaketa	19
1.5. Planifikazioa	20
1.5.1. Helburuak	21
1.5.2. Metodologia	22
1.5.3. Denbora	22
1.5.4. Baliabideak	22
1.5.5. Laburpena	23
1.6. Planifikazioa egiteko teknikak	23
1.6.1. Bederatzi galderen ereduak	23
1.6.2. Proiektuen kudeaketa	25
1.7. Ebaluazioa	26

Honela, bada, nire asmoa ez da bakoitzak bere arrazoia ondo zuzentzeko zein metodori jarraitu behar dion irakastea, baizik eta erakustea nirea nola saiatu naizen zuzentzen

(René Descartes: *Metodoari buruzko diskurtsoa*, 1.)

1.1. METODOA ETA METODOLOGIA

Metodo hitzak —latinez *methodum* eta grezieraz *methodos*— norabaiteko bidea esan nahi du. Oro har, emaitza lortzeko eragiketa ordenatuen multzo edo norberak gauzak egiteko duen modu gisa ulertzen dugu.

Historian zehar, asko izan dira honi buruz idatzi dutenak, eta haiengandik ondorio hau atera daiteke: metodologia-orientazio guztiek ezagutu nahi den errealitatearen eta giza pentsamenduaren arteko erlazio modua gainditzea izan dute helburu saihestezina. Lan honetan, besteak beste, Galileo-k, Kant-ek, Hegel-ek, Husserl-ek, etab.ek jardun dute.

Descartes-en ustez (1596-1650) metodoak, ezer baino lehen, bitarteko segurua izan behar du, errorea baztertuta, egia lortzeko. Honela dio bukatu gabeko, eta hil eta gero argitaratutako liburuan:

Izan ere, metodotzat erregela errazak eta ziurrak hartzen ditut. Horien bitartez, zuzen behatzen duen orok faltsua dena ez du egiazkotzat hartuko, eta, alferrikako lanetan nekatu gabe, uler dezakeenaren benetako ezagutza lortzera iritsiko da. (*Izpiritua zuzentzeko errege-lak*, 4.)

Horregatik, etengabeko giza ezagueraren pilaketa ziurtatuko duen metodo baten atzetik ibiliko da:

Bide hauek zenbait gogarte eta arautara eraman naute eta euren bidez metodo bat sortu dut. Iruditzen zait beraren bidez nire ezagupena mailaka gehitu ahal izango dudala, eta, pittinka-pittinka, nire gogo eskasak eta nire bizitzaren iraute laburrak uzten didaten neurrian, punturik gorenara ailegatuko naizela. (*Metodoari buruzko diskurtsoa*, 1.)

Hala ere, gaur egun ezagueraren egokitasuna metodo aproposaren hautaketan datzala sinestea gogor kritikatu zuen Feyerabend-ek *Metodoaren aurkako tratatua* (1975); metodo aldagaitzak ez du bere baitan historiak emandakoa jasotzen eta, horrela, zientziaren garapena itozteko arriskua dago. Haren ustez, zientzia ideien aniztasunean oinarritzen da; herritarren ideiek ere badute balio teorikoa:

Aho bateko adostasuna, agian, egokia izango da elizaren batentzat, mito zahar edo berri batek izuturiko biktimentzat edo tirano baten jarraitzaile ahul eta fanatikoentzat. Iritzi-aniztasuna beharrezkoa da ezaguera objektiboarentzat, eta, gainera, aniztasuna sustatzen duen metodoa da ikuspegi humanistarekin metodo bateragarri bakarra. Paul Feyerabend. (*Metodoaren aurkako tratatua*.)

Metodologia —grezieraz *methodos* eta *logos*— metodoari buruzko tratatua edo zientzia da. Bi alde izan ditzake:


1. Metodoen ezagutza eta prozedura-ikerketa.
2. Metodo baten erabilpen koherentea.

1.2. METODOLOGIA-SISTEMA

Prozesu batean erabili beharreko metodologiak, lehenik eta behin, prozedura- eta arau-multzo ordenatua izan behar du. Prozedura eta arau hauen arteko loturak sistema osatzen du, eta erlazio horren bidez batasuna eta kohesioa lortzen ditu sistemak.

Esku-hartze komunitarioan prozedura eta arauak elementu hauen inguruan osatuko dira: errealitatearen azterketa, giza baliabide eta baliabide material eta ekonomikoaren antolaketa, planifikazio-prozesua, esku-hartzearen prozesua eta prozesu osoaren ebaluazioa. Dagoen errealitatek abiatuz gizartearen aldaketa bultzatu behar da. Aldaketa hori gauzatu ahal izateko kolektiboak izan beharko du sortzailea, kritikoa eta parte-hartzailea.

Ikusten dugunez, azterketa, baliabideak, planifikazioa, esku-hartzea eta ebaluazioa ditugu elementu inportanteenak aldaketa prozesu horretan. Ezinezko egingo zaigu planifikazio egokia antolatzea, jakin gabe non kokatzen dugun gure ekintza eta zer-nolako baliabideak izango ditugun aurrera egiteko, eta, horren ondorioz, esku-hartzearen emaitza eskasa izan daiteke. Eta, amaieran, prozesu osoaren ebaluazioa ezinbesteko izango dugu jakiteko zertan asmatu eta zertan hobetu behar dugun.



Metodologia-sistema aplikatzerakoan, kontuan izan behar ditugu Sistemen Teoria Orokorren (STO) printzipio hauek:

1. Metodologiak helburu komunera ailegatzeko hainbat bide eta prozedura antolatu behar ditu.

2. Kanpo-eragileen aurrean metodologiak funtzionamendu egonkorra bermatuko du.
3. Metodologiaren bilakaera dinamikoa izango da, sistemaren baldintza-aldaketen arabera.
4. Helburuak eta posibilitateak bateratuta, baliabideak xahutu gabe garatuko da metodologia.
5. Metodologiak bere osotasunean indar handiagoa du osagaiek baino.
6. Informazioko *feed-back* mekanismoak izan behar ditu metodologiak aurreko printzipioak babesteko.

Esku-hartze komunitarioan metodologiaren helburuetariko bat prozesu parte-hartzaileak bultzatzea eta kulturaren, heziketaren, etab.etan aldaketak sortzea delako, metodologiak aldia hauek izango ditu:

1. Sentsibilizazio-aldia: aldi honetan zein egoeratan egingo dugun lan eta sektorearen kolaboratzaileak zein diren aurreikusi behar dugu. Normalean, aldi honetan errealitatearen azterketa egiten da. Beraz, parte-hartzeko edo proiektua hobetzeko interesaturik egon daitezkeen taldeen edo pertsonen informazioa jasoko dugu. Jarraian, informazioa eman eta, zenbait kasutan, hezi beharko ditugu lantalde batean parte hartzeko. Eta, azkenik, guztion konpromisoa, bileren egutegia eta helburu bateratuak jarriko ditugu.
2. Motibazio-aldia: oraingo hau taldearen antolaketa bateratua lortzeko unea izango da. Parte-hartzaileak ezagutzen hasten dira eta taldea osatzen. Horrekin batera sumatuko dute hobe dela lana antolatuta eta batera egitea.
3. Antolaketa-aldia: lan eta helburu komunak izanda, taldeak horri guztiari aurre egiten ikasiko du.
4. Parte hartzeko aldia: aldi honek ez du zertan azkena izan. Goi-mailara ailegatu arte, beste aldiekin batera gerta daiteke. Honetan denen artean erabakiak hartuko dira: zer egin, nork egin, nola egin...

Gizarte eta Kultur Animazioak bultzatzen duen metodologiaren ezaugarririk garrantzikoena gogoratuko dugu: beraien baliabideekin eta ekoizteko gai direnekin, beraien errealitatean eta kulturaren oinarrituta, taldeen osaketan laguntzea, ekintzaren protagonistak izan daitezen.

Horrek guztiak esan nahi du taldeak ekintza planifikatzen lagunduko dion gutxieneko estrategia eskuratu behar duela, arduradun izango dela, betebeharrak bere gain hartuko dituela eta ebaluaketaren diseinuan zein bere garapenean parte hartuko duela. Azken batez, tarte bat pasa eta gero, bere kasa lan egiteko gai izan behar du taldeak, laguntza teknikorik gabe.

1.3. ERREALITATEAREN AZTERKETA

1.3.1. Errealitatearen azterketa egiteko prozedura

Cembranos, Bustelo, eta Montesinos-ek (1988) proposatzen duten bezala, errealitatea hobeto ezagutzeko hurbilketa derrigorrezkoa da, eta honelakoa izan beharko luke:

1. Dagoenaren eta ez dagoenaren deskripzioa: pertsonak, taldeak, erakundeak, instituzioak, komunikazioak, azpiegiturak... modu kualitatiboan zein kuantitatiboan ezagutzeko ahalegina egingo da. Ez dagoena, berriz, hutsuneetan eta arazoetan zehaztuko da. Jendeak zeren falta nabaritzen duen, zerena ez duen eta abarri buruz hitz egiteko unea da.

2. Egoerari buruzko jendearen pertzepzioa: jakin behar dugu dagoenari buruz jendeak zer iritzi duen. Bestalde, komunitateak berak nola ikusten duen bere burua jakiteaz gain, komeni izango da jakitea komunitateak bere buruari ematen dizkion balio eta posibilitateak.
3. Errealitatea ulertu: ahalik eta modu sakonenean aztertuko da egoeraren zergatia eta zergatik zabaltzen diren uste jakin batzuk errealitateari buruz.
4. Alternatibak eta soluzioak: etorkizuneko ekintzen helburuak plazaratuko dira. Komunitateak lortu nahi duena zehaztu behar da, eta horretarako ideiak bateratuko dira.
5. Egokitzapenak: taldeak, animatzailearekin batera, planifikazio-prozesua egituratuko du. Zer egingo duten eta zer estrategia erabiliko den azaltzeko ordua da.

1.3.2. Beharrak, interesak, baliabideak eta aukerak ezagutu

Beharrak antzemateko eta jarduera programak proposatzeko, aldatu nahi dugun guneko errealitatea ondo menperatu behar dugu. Talde baten beharrak antzematerakoan finkatuta geratuko dira, eta, horren ondorioz, ez ditugu helburua eskuraezinak aukeratuko. Taldeak bere beharrak antzematen baditu, errazago parte hartuko du proiektuan, proiektuaren subjektua bihurtuko baita.

Hala ere, beharrak eta *interesak* bereizi behar ditugu. Beharrak ez dagoen eta premiazko den zerbait adierazten du, eta interesak taldearen nahiak azaltzen ditu, hots, jendearentzat oinarritzko ez den zerbait.

Azterketan komunitate horren *baliabide* guztiak jasotzen dira: zerbitzuak, instituzioak, taldeak, giza baliabideak, baliabide ekonomikoak, etab. Datu horiekin, komunitate horren aberastasuna neurtzen dugu, eta, horrela, ekintza-programak gauzatzeko datu-bilketa interesgarria izango zaigu.

Azkenik, komunitatearen gaitasuna neurtzen badugu, komunitate horren *posibilitateak* aurreikusteko aukera izango dugu. Interesen, baliabideen eta gogoaren arabera jakin dezakegu noraino irits daitekeen komunitatea. Hau horrela izanik, komunitatearen posibilitate bera ere har daiteke baliabidetzat.

1.3.3. Lehentasunak

Lehentasunak zehazteko garaian, oinarritzkoenak izango dira garrantzizkoenak, eta lehentasun objektiboak subjektiboak baino lehenagokoak. Hala ere, beti ez da erraza izaten premiazkoenak antzematea; horregatik, alde zuzeneko ikerketa lan sakona egiten badugu, zehaztasun maila hobea lor dezakegu.

Horrekin batera, taldearen posibilitateak ere kontuan hartu behar ditugu: lortezina den zerbait ez dugu sekula planteatuko. Helburuek eskuragarri izan behar dute.

1.3.4. Proiektuaren oinarriak

Proiektuaren zergatia azalduko dugu: aurrekariak, motiboak eta jatorria. Gure jarduera marko teoriko batean oinarritzeaz gain, proiektuak eraginkorra izan beharko du, eta, ildo horretatik, ahalik eta argien azalduko du nondik abiatzen den: erreferentziazko premisa argietan oinarrituko dugu ekintza.

1.3.5. Arazoa mugatu

Arazoa identifikatu eta haren aurkezpena egingo dugu atal honetan. Horretarako, behin arazoa identifikatu eta gero, saiatuko gara arazoa argi, labur eta zehatz-mehatz aurkezten. Ez bagera gai arazoa idatzita aurkezteko, ez dugu arazoa ulertu.

1.3.6. Proiektua kokatu


Proiektua fisikoki kokatu behar dugu. Proiektuaren kokapena zehazteko, ingurunearen datuak azalduko ditugu, hala nola herriaren datuak, datu geografikoak, datu kulturalak...

1.3.7. Bibliografia aztertu

Behin arazoa aurkeztu eta gero, gaiari buruzko bibliografia ezagutzea komeni da. Bide honetatik taldeak harreman berriak izateko aukerak ditu: egileak, unibertsitatea, erakundeak...

1.3.8. Biztanleak ezagutu

Proiektua gauzatuko duten biztanleak ezagutu behar dira. Haien egoera, ezaugarriak eta beharrak ezagutuko ditugu.



1.4. ERREALITATEAREN AZTERKETA EGITEKO TEKNIKAK

1.4.1. Ikerketa orokorra

Teknika honetan ahalik eta datu-bilketa zehatzena prestatuko dugu. Bertan honako esparru hauek aztertuko ditugu: ingurune soziala, hiri-ingurunea, natura-ingurunea, ekonomia, historia, osasun- eta gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, kultura eta aisia, komunikabideak...

1. Ingurune soziala:

- Demografia: ezaugarriak, piramidea, bilakaera...
- Giza antolaketa: erakunde publikoak eta pribatuak, elkarteak, antolaketa politikoa, erlijio-erakundeak...
- Giza gatazkak.

2. Hiri-ingurunea:

- Etxebizitza, eraikin publiko, industrial eta komertzialak.
- Lurraren banaketa eta funtzioa.
- Kultur eta aisialdirako guneak, gune berdeak.
- Bide-sarea, sarbideak.
- Saneamendu-sarea.

3. Natura-ingurunea:

- Kokapena.
- Lursailak.
- Flora eta fauna.
- Klimatologia.
- Hidrografia.
- Ekologia-arazoak.

4. Ekonomia:

- Lehen sektorea —nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, basozaintza...—, bigarren sektorea —industriagintza, artisautza...—, hirugarren sektorea —zerbitzuak, merkataritza...
- Lan-baldintzak.
- Langabezia.
- Formazioa.
- Erakundeak.
- Bitartekoen jabetza.

5. Historia:

- Jatorria, tradizioak, kondairak, pertsonaiak, aztarna historikoak.
- Arlo ekonomikoa, politikoa, soziala eta kulturala.

6. Osasun- eta gizarte-zerbitzuak:

- Hornikuntza.
- Prebentzioa.

- Asistentzia.
- Banakako eta taldekako baliabideak.

7. Hezkuntza:

- Haur-hezkuntza.
- Lehen hezkuntza.
- Bigarren hezkuntza.
- Lanbide-heziketa.
- Helduen heziketa.
- Produkzio-sistemarekiko egokitzapena.

8. Kultura eta aisia:

- Erakundeak, ekintzak, funtzionamendua.
- Lokalak, hornikuntza, baliabideak.
- Aisialdirako proposamenak.
- Topalekuak, jolas- eta kirol-guneak.

9. Komunikabideak:

- Egunkariak, irratiak, telebistak.
- Bertako ekimenak.
- Informatika-sarea.

10. Bestelakoak

1.4.2. **Eztabaida-taldea**

Bilera batean talde bat hasiko da hizketan gai bati buruz. Homogeneotasuna kontuan hartuta, bilera horretan 6/10 lagun arituko dira biribilean eserita. Koordinatzaile batek lagunduko die, baina ez du zuzenean parte hartuko. Garatzen den diskurtsoaren azterketak adieraziko digu taldearen jarrera gai horrekiko.

Koordinatzaileak, eztabaidarako gaia aurkezteaz gain, bileraren helburua eta bere garrantzia azalduko dizkie parte-hartzaileei. Gainera, argituko die nola bideratu eztabaida eta horretarako duten denbora.

Parte-hartzaileek, txandak errespetatuz, euren iritziak azaltzen dituzten heinean, informazio guztia jasoko da, grabatua zein idatzia. Azkenean, esandakoaren laburpena egingo zaie.

Bestalde, koordinatzaileak ezin du iritzirik sortu, baina ateratzen diren iritzien garapena lortzen saiatuko da. Batik bat, bere lana parte-hartzaileak suspertzea izango da, eta, bien bitartean, argibideak eskatzeaz gain, iritziak laburbilduko ditu.

1.4.3. **Etorkizuna**

Bostetik berrogeira arteko pertsona talde bat elkartuko da, eta, berehalako zailtasunak kontuan hartu gabe, errealitatea nolakoa izatea gustatuko litzaieken plazaratuko dute. Ekintza

horrek taldearen gaitasun sortzailea bultzatuko du; horrela, izan ere, proiektua baldintzatzen duten faktoreak saihesten ahalegin daitezke.

Irudimenari mugarik jarri gabe, aldatzeko eremu bati buruzko ideia solteak plazaratuko dira. Guztiak jasoko dira arbelean. Hurrengo pausoa, ideia horiek berriak sortuko dituzte asoziazioz, konbinazioz, garapenez zein alderanzketaz. Bukatzeko, gauzatzeko aukeraren arabera sailkatuko dira: egin daitezkeenak; egin daitezkeenak baldintza batzuk izanez gero; eta momentuz gauzatu ezin direnak, baina, etorkizunari begira, sustapen gisa balio dutenak.

1.4.4. DELPHI teknika

Teknika horrekin, informatzaile aditu batzuen iritziak jaso eta gero, gai bati buruzko bat-etortze maila aztertuko da. Teknika hau aplikatzeko bost bat galdeketa diseinatuko dira, eta, gero, adituei pasatuko zaizkie. Galdeketak elkarriketa moduan daude egituratuta, eta adituek euren artean ez dute inolako harremanik.

Delphi teknika aplikatzean, hiru talde arituko dira lanean:

1. Erabiltzaileen taldea.
2. Galdeketa diseinatzen duen taldea.
3. Informatzaile adituen taldea.

Hiru talde horiek zehaztu eta gero, honako prozedura hau jarriko da abian:

1. Arazoaren adierazpena.
2. Adituen aukeraketa: horretarako irizpide batzuk erabiliko ditugu; besteak beste, eskarmentua, gaiari buruzko ezagutza, lan espezialitatea...
3. Lehen galdeketaren diseinua: galdera irekiak eta hainbat ikuspunturekin.
4. Lehen galdeketaren erabilera: adituen anonimata eta isilpeko informazioa ziurtatu beharko dira.
5. Lehen galdeketaren azterketa
6. Bigarren galdeketa: galdera irekiak eta itxiak izango ditu, eta aurreko galdeketaren alternatibei buruzko galderak.
7. Hirugarren galdeketa: aurreko bi galdeketatik jasotako informazioarekin galdera itxiak aurkeztuko dira. Galdera bakoitzak bat etortze maila azalduko du, eta, desbideratze handia gertatuz gero, horren arrazoiak.
8. Laugarren galdeketa: hirugarren galdeketaren datuen tabulazioa azalduko da, adostasunak eta desadostasunak ikusteko, eta adituek joera nagusiaren aurkako iritzien kontra argudiatuko dute.
9. Azken galdeketa: adituei azken iritzia eskatuko zaie.

Hurrengo pausoa, informazio hau guztia estatistikaren teknikak erabiliz izango da aztertua. Informazio horretatik gehien interesatuko zaiguna hauxe izango da:

1. Adostasun/desadostasun-maila. Erabateko adostasunaz hitz egingo dugu maila hau gutxienez %75 denean; adostasun partzialaz, %70 eta %75 artean denean; adostasun txikiak, %70 baino txikiagoa denean.
2. Interes-maila.
3. Antzeko ideien multzoak.

4. Erantzunen banaketa.
5. Iritzi-homogeneotasuna.
6. Atxikimendu/gaitzespen-maila.
7. Sentsibilizazio-maila.

1.4.5. Giza adierazleak

Giza adierazleak datu estatistikoak baino ez dira, eta horien azterketa egiteko hiru atal hartuko ditugu:

1. Biztanleen deskribapena: adin, errenta, genero, etnia eta kokapenari buruzko datuak.
2. Arrisku-faktoreen azterketa: zerbitzuen beharra adieraziko digute.
3. Komunitatearen adierazleak: datu hauek erroldatik atera daitezke, eta, nahi izanez gero, beste hainbat datu emendatu.

1.4.6. Baliabideen inbentarioa

Teknika honen bidez, komunitateak erabil ditzakeen baliabideen zerrenda egingo dugu. Baliabideen jabeak pertsonak zein erakundeak izan daitezke. Hori ezagutzeaz gain, haien koka-pena eta norik kudeatzen dituen eta nola jakin behar dugu. Beraz, teknika honen helburua izango da norik dituen baliabideak eta zein diren jakitea.

Pérez-Campanero-ren arabera (1991), inbentario honek era askotako baliabideak jasoko ditu; besteak beste, zerbitzuak, programak eta esku-hartze proiektuak. Haren ustez, inbentarioak erakutsi beharko digu honako esparru hauen egoera:

1. Errenta eta ekonomiaren aukerak.
2. Osasuna.
3. Oinarrizko eta beharrezko materialen hornikuntza.
4. Ezagutzaren eta trebetasunaren eskuratzea.
5. Ingurunearen kalitatea.
6. Taldearen eta norbanakoaren segurtasuna.
7. Giza funtzionamendua.
8. Zerbitzuen egitura eta eraginkortasuna.

1.4.7. Arazoen zundaketa

Arazoen zergatiak zehazteko erabiliko dugu teknika hau. Hiru zatitan banatuko dugu prozedura:

1. Gertatzen ari denaren azterketa.
2. Gertatu beharko lukeenaren azterketa.
3. Bat ez etortzeak zehaztea.

Lehenengo atalean, non, nola, norekin... gertatzen den arazoa azaldu eta gero, zer-nolako hornitze eta zein prozedura dauden nahasita jakin behar dugu. Bigarrenean, aldiz, suposatu beharko genuke arazo bera nonbaiten gerta zitekeela, eta zergatik ez den gertatzen aztertu beharko

dugu. Bukatzeko, arazoarekin zerikusi duten eta ez duten faktoreen zerrenda egingo dugu. Bi faktore multzoen bat ez etortzeak emango digu arazoaren kokapen zehatza.

1.5. PLANIFIKAZIOA

(CEMBRANOS, BUSTELO eta MONTESINOS: *La animación sociocultural: una propuesta metodológica*, 1988.)

«Gizarte eta Kultur alorreko esku-hartze prozesuetan planifikazio hitzak honako hau esan nahi du: hartutako erabakiak betetzeko, aukeratutako plangintza gauzatzeko eta aurkeztutako helburuak lortzeko sistema.

»Planifikazio metodologiak ez dira behar bezala erabili eta honelako akatsak izan dituzte: jomuga zehaztugabeak, inprobisatzeko joera, gutxi batzuek egina izatea lan guztia, gogogabetsuna edo ohikeria eredu gisa, proiektatzeko ideia gabezia, aurrerapausoen kontzientzia falta, gertakizunen kontrolik eza, proiektuen diseinu ederrak baina erabiltezinak, e.a.

»Gizarte eta kulturaren planifikazioak dakartza, bestalde, utopiaren mailaketa eta etorkizunaren aurrerapena, errealitate saihestezinetik utopia sortzailera pasatzeko. Planifikatzerakoan, jardueraren etorkizuneko ikuspegia lantzen da. Horrek garamatza oportunitateak eta alternatibak aprobetxatzen eta arriskuak eta zailtasunak aurreikustera. Horrela, planifikazioa talde-prozesuaren hari eroale bihurtzen da, eta, hala dagokionez, giza eragile parte-hartzaile guztien inplikazioa eskatzen du, gero, betetzerakoan, konpromiso egokia lortu ahal izateko.


»Hemen eskaintzen den metodologia-proposamena baliabideen eta denboraren arteko konbinaziotik abiatzen da, ekintzarako aldagai baldintzatzaileak baitira. Planifikazio bakoitza epe egokiz osatua egongo da, eta epeok iraungo dute erabiliko ditugun baliabideek funtzionamendu zuzena bermatzen duten bitartean. Bakoitzaren irismenaren arabera, bi planifikazio-maila bereizi ditugu: planifikazio estrategikoa —estrategia kontzeptuarekin erlazionatuta, baina bereizita— eta planifikazio eraginkorra. Lehenengo maila, estrategikoa alegia, ebaluazio-mekanismoen eta giza egituraren antolaketa ekintzaren xede eta motibazio orokorren gainean eraikitzen da, beharrezko azpiegitura laguntzailea eta haren adierazle klabeak aurreikusi eta gero. Bigarren maila, eraginkorra hain zuzen ere, ekintzara eramango gaituzten berariazko helburuei begira lantzen da, honako elementu hauekin: informazioarekin, pertsonekin, lehengaiekin, azpiegiturekin, finantziarioarekin, gauzatzeko denborarekin... Labur esanda, planifikazio estrategikoa etorkizunera begira jokatzeko du; planifikazio eraginkorrek, aldiz, atzera begira.

»Azken batean, planifikazio baliagarria bideratzen duten klabeak hauek ditugu:

1. helburuen aurkezpen egokia; eta hauek koherenteak, motibatiboak, parte-hartzaileak, zehatzak, neurrikoak eta ebaluagarriak izatea;
2. sistemen teoria orokorraren printzipioen erabilera: helburu bera izatea; egonkor, moldatzaile eta eraginkor izatea; sinergia eta berrelikadura-sistema edukitzea;
3. planifikatzeko beharrezko malgutasunaren aurreikuspena; erabakiaren, jardueraren eta arduraren arteko erlazioa egotea;
4. informazioaren erregistro- eta birziklatze-sistema eraginkorra.

»Amaitzeko, planifikazioaren metodologia erabiltzeko arau unibertsala gogoratuko dugu: esparru sinpleenetik konplexuenera, ekintzaren alde bakarreko ikuspegitik osotasunera.»

Egile horien arabera planifikazioak honako hauek eskatzen ditu:



1.5.1. Helburuak

Errealitatearen azterketa egin ondoren, diagnostikoak bete beharreko helburuak erakusten ditu: lortu nahi ditugunak, alegia. Beraz, helburuen bidez ekintzari bere izaera eta koherentzia ematen dizkiogu.

Helburuek argiak —ulertzeko errazak—, errealistak —metodologia eta baliabideen arabera— eta egokiak —arazoei lotuak— izan beharko dute.

Erreferentziaren arabera, helburuak orokorrak eta berariazkoak izan daitezke. Helburu orokorrek proiektuaren eremua azpimarratzen dute, eta, formulazioaren arabera, hainbat interpretazio izan ditzakete. Berariazkoek, aldiz, zehatzago erakusten dute lortu nahi duguna; orokorrek esandakoa murrizten dute eta interpretazio bakarra onartzen dute.

Helburuen formulazioan orokorrek ezagutu, ulertu, aztertu... motako aditzak erabiltzen dituzten bitartean, berariazkoek, aldiz, ekintzarekin lotutakoak erabiltzen dituzte: sailkatu, bereizi, ordenatu, erabaki, kalkulatu, errepikatu, etab.

1.5.2. Metodologia

Helburuak eskuratzeko bideari ekin behar diogu; hori dugu metodologia. Baliabideek, teknikak eta metodoek osatzen dute metodologia. Beraz, metodologia proiektuaren ardatza bihurtzen zaigu, eta, horrela izanda, tentu handiz aukeratu behar dugu eta baita ondo ebaluatu ere.

Metodologiak kontuan hartuko ditu:

1. Proiektua garatzeko egin beharreko ekintzak. Ekintzak sailkatu egingo ditugu eta horien planifikazioa zehaztuko dugu.
2. Datuak biltzeko erabiliko diren teknikak eta baliabideak argituko dira: elkarrizketak, galdeketak...
3. Biztanleak definitu beharko ditugu. Biztanle hauek zehaztu beharko dira eta ezaugarriak ezagutu: adina, sexua, formazioa, egoera soziala...
4. Biztanle guztiakin lan egitea oso zaila denez, lagin bat aukeratu beharko dugu eta hori osatzeko bete beharreko baldintzak. Lagin honen balioa ez dago bere tamainan, adierazgarritasunean baino. Laginak aztertu nahi ditugun biztanleak ordezkatu behar ditu; horregatik, multzoaren ezaugarriak jasoko ditu.
5. Datuen bilketa egiterakoan jakin behar dugu, aldez aurretik, zeintzuk interesatzen zaizkigun. Era berean, noiz eta nola egingo den bilketa zehaztuko dugu, azpimarratuz prozesuaren zein unetan.
6. Datuen azterketa egiteko argituko dugu nola egin den hori guztia eta zer- nolako teknikak erabiliko ditugun horretarako.

1.5.4. Denbora

Ekintzen iraupena finkatzeko balio du, eta horretarako proiektuaren etapak zehaztu behar ditugu. Ekintzen egutegia izango da: planifikatutako ekintzak hasieratik proiektuaren bukaera arte azaltzen dira.

Denbora-plangintza horretan etapen segida azalduko dugu, eta horiek nola gertatzen, osatzen eta koordinatzen diren. Segida erabaki eta gero, etapa bakoitzaren iraupena azalduko dugu. Denbora erabiltzerakoan, malgutasunez jokatu behar dugu, baina beti bete beharreko epeak jarriko ditugu.

1.5.5. Baliabideak

Neurri handi batean proiektuaren garapena bermatzen dute. Baloratu behar diren baliabideak honako hauek dira:

1. Giza baliabideak: zein pertsona behar ditugun proiektua aurrera eramateko eta zertarako behar ditugun finkatu behar dugu. Funtzioak eta lanak pertsonen arabera banatuko dira. Era berean, ekintzen arduradunak izendatuko dira. Aldez aurretik, jakin behar da pertsona bakoitzaren formazioa, eskarmentua eta proiektuari emango dion denbora.
2. Baliabide materialak: proiektua hasi aurretik, ezinbesteko materialen zerrenda zehatza egingo dugu. Horretarako kontuan hartuko ditugu:

- Instalazioak.
- Material suntsigarriak.
- Tresnak, materialak, erremintak...
- Ikus-entzunezkoak, garraioa, kirol-materiala, kultur materiala...

3. Baliabide finantzarioak: Gerta daitezkeen gastu guztien aurreikuspena egina edukitzea komeni da. Taldearen, bileren, garraioaren, materialen, instalazioen eta abarren gastuetan oinarritutako aurrekontua landuko dugu. Horrezaz gain, proiektuaren finantzaketa dela eta, jakin behar dugu erakunderen baten diru laguntzarik dugun ala ez.

1.5.6. Laburpena

Proiektua aurrera eramateko honako hau jakin behar dugu:

Zer egin nahi dugu?	Proiektuaren ezaugarriak	Arazoa mugatu
Zergatik egin nahi dugu?	Proiektuaren jatorria	Oinarria jarri
Zertarako egin nahi dugu?	Proiektuaren helburuak	Beharrak/Interesak erabaki
Norentzat egin nahi dugu?	Proiektuaren erabiltzaileak	Biztanleak ezagutu
Non egin nahi dugu?	Proiektuaren kokapena	Kokatu
Nola egin nahi dugu?	Proiektuaren metodologia	Aktibitateak antolatu
Nork egingo du?	Proiektuaren parte-hartzaileak	Baliabideak sailkatu
Zerekin egingo dugu?	Proiektuaren materialak	Baliabideak ordenatu
Nork ordainduko du?	Proiektuaren finantziazioa	Baliabideak kalkulatu

Proiektua eraiki ahal izateko, aurreko pauso horiek guztiak aurreikusi behar ditugu. Behin hori eginez gero, proiektua aurrera eramateko moduan gaude: proiektua betetzeko unean gaude. Eragile guztiak dagoeneko antolatuta eta koordinatuta badaude, gertaeren kateatzea baino ez zaigu geratzen; proiektua burutzea, errealitatera egokituz.

Gauzatze-unea esku-hartze komunitarioaren unea izango da. Errealitatea kontuan hartuta abiatu gara, hura aldatzeko asmoz. Errealitatearen azterketaren eta planifikazioaren laguntzaz eginiko bidaiaren jomugara heltzeko gai izan gara; hemendik aurrera, asmatu dugun ala hobetu behar dugun erabakitzeko lana geratzen zaigu, ebaluazioa, alegia.

1.6. PLANIFIKAZIOA EGITEKO TEKNIKAK

1.6.1. Bederatzi galderen eredia

Nahiz eta oso erraza izan, teknika hau oso lagungarria da proiektuak lantzeko eta planifikatzeko; bederatzi galdera baino ez dira erantzun behar: zergatik, zer, zertarako, norentzat, nola, norekin, zerekin, noiz eta non.

Hasiera batean talde txikian egiteko tresna bada ere, planifikazioa aurrera joan ahala, askoz handiago izan daiteke taldea; jendearen parte-hartzearen arabera izango da.

Kudeaketarako eta planifikaziorako teknika zehatzago batzuk jarriko dira martxan. Bederatzi galderari erantzuna emanez gero, gizarte eta kultur animaziorako edozein proiektu landu daiteke.

Errealitatearen azterketa egin ondoren, aurrera eraman nahi dugun ekintzaren jatorria eta oinarria zehaztu behar ditugu. Beharrak eta aukerak kontuan hartuta, argitu beharreko lehen galdera: «*zergatik* egin proiektua?». Horrekin batera, «*zer egin?*» galderari erantzuna ematerakoan, proiektuaren ezaugarriak finkatuko ditugu.


Hurrengo pausoan, behin proiektua aukeratu eta gero, «*zertarako?*» galderari erantzunaz ekintzaren helburuak argituko ditugu. Pauso honetan, berriro, beharrak eta aukerak galdera horren mugatzaileak izango ditugu. Jarraian, ekintzaren erabiltzailea zehazteko *norentzat* den planteatuko dugu; erabiltzaileak zehazteaz gain, zein mailatan jasoko duten ekintza finkatuko dugu.



Behin aurreko pausoak emanez gero, planifikazioaren gunean sartzen gara. Aktibitateak eta lanak aukeratzen ditugunean, «*nola?*» galdera erantzuten ari gara. Bestalde, proiektuaren antolaketa eta metodologia ere aurkeztuko ditugu.

«*Norekin?*» eta «*zerekin?*» galdetutakoan baliabideez galdetzen dugu: giza baliabideak zein baliabide materialak eta finantzarioak. Giza baliabideen kasuan, koordinazio taldea eta kolaboratzaileak izendatu eta gero, erantzukizunak eta harremanak jarriko dira. Materialen eta finantzaketaren inbentarioa egin ondoren, ezinbestekoak zein diren jakin behar dugu, proiektua egonkorra izan dadin.

Kudeaketa eta betetze-prozesua zehazten dugunean, «*noiz?*» galderari erantzuna eman behar zaio; proiektuaren egutegia finkatuko dugu: ekintza eta aktibitate bakoitzaren denbora mugatuko dugu.

Azkenik, «*non?*» galderari erantzuterakoan kokapen fisikoari buruzko datuak emango dizkigu.





1.6.2. Proiektuen kudeaketa

Irudien bidez proiektuaren kudeaketa erakutsiko dugu. Eman beharreko pausoak jasoko dira laburbilduta: lanen banaketa, ekintza bakoitzaren denbora, baliabideen banaketa...

Koordinazio taldeak beteko du lan hau, baina partaide guztiek ikusi ahal izango dute irudia; publikoa izan beharko du. Horrez gain, malgu jokatzeko tresna izan beharko du, eta, horregatik, proiektua aurrera joan ahala aldaketak ere egin ahal izango dira. Hala ere, eraginkorra eta sendoa izan beharko du.

Besteak beste, elementu hauek izan behar ditu:

1. Lan-diagrama.
2. Lan-kronograma.
3. Lan- eta erantzukizun-kronograma.
4. Informazio-planigrama.

Organigrama:





Diagrama:



Kronograma:

1/3	15/3	1/4	15/4	1/5	15/5	1/6	15/6	1/7	15/7	1/8	15/8	1/9	15/9
1/Taldea													
		2/Taldea											
		3/Arkitektoa											
						4/Profesionalak							
											5/Hornitzaileak		
												6/Taldea	
													7/Taldea

1.7. EBALUAZIOA

Aldez aurretik jakin behar dugu ebaluazioa ez dela prozesuaren bukaeran bakarrik egingo. Prozesua jorratzen hasten garenetik, ebaluazioa garatzen joan behar dugu, eta, horrela, uneko emaitzak, akatsak, aktibitateen egokitzapena, eta aurreikusi gabeko gertaerak aztertuko ditugu. Ebaluazioak proiektuaren helburuak, hasiera batean jarritakoak, eta lortu duguna alderatu beharko ditu.

Ebaluazioa egiterakoan bi alderdi izango ditugu gogoan: hasierako diagnostikoa eta planifikazio- eta betetze-prozesua.

Diagnostikoaren ebaluazioan proiektuaren justifikazioari, motibazioari eta komunitatearen beharrei buruzko hausnarketa kritikoa azalduko dugu. Lan hau egiteko, proiektuaren zati hauek hartuko ditugu kontuan :

1. Gaingitu beharreko arazoa.
2. Arazoaren jatorrizko motiboak.
3. Biztanleek nola ikusten duten arazoa.
4. Arazoa ondo mugatu dugun ala ez.
5. Arazoak biztanleengan duen eragina.
6. Irtenbidearen egokitasuna.

Esku-hartze prozesuaren ebaluazioak etengabekoa izan behar du. Planifikazioan zein betetzean, adi egon behar dugu ea akatsen bat sortzen den. Horrela balitz, edozein hutsegite momentuan zuzendu beharko genuke. Etengabeko ebaluazio horretan ikusi beharko dugu:

1. Arazoa konpontzeko nolako metodologia erabili dugun.
2. Metodologia horrekin helburuak lortu ditugun.
3. Beharrak eta irtenbideak bat datozen.
4. Aukeraturako ekintzak egokiak izan diren ala ez.
5. Denboraren erabilera zuzena izan den.
6. Teknikak eta baliabideak ongi aprobetxatu ditugun.
7. Baliabide nahikoak izan ditugun
8. Metodologian aldaketak sartzea komeni den

Etengabeko ebaluazioari esker aurrerapenak zein hutsegiteak ikus ditzakegu. Horren arabera, ohartuko gara helburuak zein mailatan, eratan eta modutan eskuratu ditugun.

Edozein ebaluaziok etengabea, sistematizatua eta malgua izan behar du. Nahiz eta bakarra izan, continuum gisa ulertu behar baitugu, etengabeko ebaluazioan honako tarte hauek bereizi ditugu: hasierako ebaluazioa, prozesuaren ebaluazioa eta bukaerako ebaluazioa. Hasierako ebaluazioa proiektuarekin batera jarriko da martxan. Prozesuaren ebaluazioak, aldiz, bidea emango dio bukaerako ebaluazioari, hasierakoan eta prozesuaren ebaluazioan emandako datuak laburbiltzeko. Laburbiltze horrekin ikusiko dugu proiektuaren helburuak bete diren eta, horrela izan bada, zein neurritan izan den.

Prozesuak zer-nolako eragina izan duen erabiltzaileengan eta ebaluazioan lortutako datuak aztertu behar dira. Honen guztiaren berri gera dadin, era objektiboan eta nabarmenean jasoko ditugu ebaluazioaren emaitzak.

Prozesu osoa ebaluatu eta gero, bukaeran berri guztiakin txostena egitea komeni da. Txosten horretan, diagnostikoa egiteko, prozesua betetzeko eta emaitzak lortzeko prozedura azaldu behar dugu. Ondorio eta emaitza positiboekin batera, proiektuaren garapenaren mugak jasoko ditugu.

Txostena egiten badugu, prozesua sistematizatuta utziko dugu eta edozein talderentzat baliagarria izan daitekeen dokumentazioa gordeko dugu. Gainera, pentsatu behar dugu proiektua ez dela sekula bukatzen, eta, ildo horretan, jasotako informazioak balio izango digu ikuspegi berriak urratzeko.

«Gorrotagarri eta ezkorra da baieztatzea gauzak horrela direla ezin direlako bestela izan, zoriona boterea dutenena bakarrik dela erabakitzen baitu.»

PAULO FREIRE

Esku-hartze
komunitarioaren uneak **2**

AURKIBIDEA

2. ESKU-HARTZE KOMUNITARIOAREN UNEAK	29
2.1. Ikastekoa eta ikertzekoa	31
2.1.1. Ikasteko lehen unea	31
2.1.2. Ikasketak jarraitzen du lanarekin batera	31
2.2. Entzutekoa eta norbanakoaren arazoak jasotzekoa	33
2.3. Lehenengo esku-hartzearena	34
2.4. Ohiko esku-hartzearena	36
2.4.1. Gizarte-langileen betebeharra	36
2.4.2. Jarduera abian jartzen da	36
2.4.3. Komunitatearentzako plangintza	37
2.5. Eskualdeko esku-hartzearena	38

2.1. IKASTEKOA ETA IKERTZEKOA

2.1.1. Ikasteko lehen unea

Tarte hau ikasketarako eta giza ikerketarako izango dugu. Metodoan oinarrituta, zehazki, eta ahalik eta informazio zabalenaekin ikasketa eta ikerketa landuko ditugu. Ikasketarekin eta ikerketarekin, egoeraren, arazoaren eta jardueraren ezaguera bermatuko dugu. Hurrengo pausoen, ikasketa eta landa-lana elkarrekin arituko dira; esku-hartzeak aurrera egin dezan ikasketa eta jardura lotu beharko ditugu.

Ikasketa/ikerketa jarduerak, Marchioni-ren arabera (1997), gizartearen egitura-eragileak erabiliko ditu: lurraldea, biztanleak, eskariak eta baliabideak. Lehenik eta behin, komunitatearen lehen diagnostikoa egin beharko dugu. Arazoak eta esku-hartzeak planteatuko ditugu, orokorrean, zehaztapen handirik gabe.


Komunitatearengana gerturatzeko lehen pauso honetan errealitatearen gutxienezko ezaguera lortu behar dugu. Zenbat eta informazio gehiago bildu, orduan eta errazago egingo zaigu esku-hartze lana. Gainera, ingurua ezagutzen dugula adierazten badugu, komunitateak hobeto hartuko gaitu. Lehen harreman honetan gauzak erraztea dugu helburu. Komunitatea ezagutzeko, bidea errazten zaigu. Jarraian, hasierako ezaguera hau ziurtatu eta sakondu behar dugu, informazioaren bidez, biztanleekin harremanetan jarrita.

Hasiera honetan honako atal hauek aztertu beharko ditugu:

1. Parte-hartzaileak: administrazioak eta erakundeak, biztanleak eta baliabideak (ezaguerak, gizarte-langileak, teknikariak)
2. Komunitatea: lurraldea, biztanleak, eskariak eta baliabideak. Biztanleak hartuz gero, esku-hartze prozesuaren erabiltzaileak zeintzuk diren zehaztuko dugu: komunitatearen liderrak, arduradunak, ordezkariak, kolektiboak eta taldeak. Taldeei dagokienez, formalak (asoziazioak) eta ez-formalak bereiziko ditugu. Eskariak zehazten, aldiz, errealitatearen azterketak lagunduko digu. Baliabideak ikertzerakoan, kontuan hartu beharko ditugu hezkuntza zerbitzuak, osasun zerbitzuak, asistentzia-zerbitzuak, lanbide-zerbitzuak, informazio-zerbitzuak eta kultur- eta aisialdi-zerbitzuak.
3. Metodologia: informazioa eskuratzeko eta zabaltzeko informazio-plangintza sortuko dugu; ikerketaren bidez, diagnostikoa eta ezaguera lortuko ditugu; planifikazioa eginenez, komunitatearentzat programa komunitarioa bultzatuko dugu; dokumentazioa gordetzeko eta erabiltzeko dokumentazio sistema sortuko dugu; eta, hau guztia koordinatzeko, batzorde teknikoa izendatuko dugu.
4. Talde komunitarioa: gizarte-laguntzailea, medikua/erizaina eta animatzailea/hezitzailea.


2.1.2. Ikasketak jarraitzen du lanarekin batera

Marchioni-ren ustez (1997), ikasketaren ibilbidea ez da bukatzen lan praktikoa hasten denean. Hemendik aurrera, elkarrekin joango dira ikasketa/ikerketa eta lana. Edozein inkesta hasi baino lehen, biztanleei teknikarien ikerlana banatuko zaie, ikasketa/ikerketa prozesuaren garapena hobeto uler dezaten.



Hurrengo pausoen, inkesta egin eta gero, lan-taldea zabaldu behar dugu. Inkesta prestatu dutenez gain, interesatu guztiak bildu daitezke arazoak definitzeko eta konpontzeko. Emaitzen eztabaidatik ateratako ondorioak erabiltzaileek eta teknikariek bere egin behar dituzte. Gauzak horrela egiten badira, helburuak finkatzeko eta baliabideak antolatuzeko arazo gutxiago azalduko zaizkigu.

Talde komunitarioarekin batera (gizarte-laguntzailea, medikua/erizaina, eta animatzailea/hezitzailea), talde ikuskatzailean aurkituko ditugu interesatuak. Komunitatearen partaide horiek, lana jarraitzeaz gain, bere parte-hartzearekin bitartekari lana ere beteko dute: ikertzaileak eta biztanleak elkarrengandik gertuago jarriko dituzte. Komunitateko gainontzeko partaideek ikerlanaren berri izango dute euren auzokideei esker. Zubi horren sendotasunaren araberakoa izango da etorkizuneko lorpena. Zenbat eta sustrai sakonagoak izan proiektuak, orduan eta emaitza hobeak lor daitezke.



Ikasketa eta lanaren arteko lotura

Emaitzak parte-hartzaileek eta talde komunitarioek eztabaidatuko dituzte argitaratu baino lehen. Parte-hartzaileei ez dagokie bakarrik inkestaren jarraipena egitea, emaitzei buruzko iritzia ere jarriko dute mahai gainean. Gauzak horrela, biztanleek hobeto ulertzeko jardueraren beharra, emaitzen argitalpena eta banaketa egingo ditugu. Biztanleak bitan jasoko dute informazioa: ikerlanaren berri jasotzean eta emaitzak ezagutzean.

2.2. ENTZUTEKOA ETA NORBANAKOAREN ARAZOAK JASOTZEKO

Inkesta egin ondoren, teknikariak biztanleengana hurbilduko dira lehen aldiz. Hartu-eman honetarako teknikariak aurreiritziak baztertuko dituzte. Gerturatze hau jarrera erabat irekiarekin egingo da eta teknikariak entzun baino ez dute egingo. Oraingo honetan, ez dute ezer erakutsi behar; kontuan hartuko dute bakarrik biztanleak azaltzen dutena. Teknikarien lan honetan, batik bat, jendea entzuteko gaitasuna eta jarrera baloratuko da.

Emaitzen fidagarritasuna handitzeko, komunitateko biztanle guztiei emango zaie aukera hartu-eman honen bidez arazoak eta ikuspuntuak azaltzeko. Horrela, ekintza honekin azalduko dira biztanleen arazoak, irtenbideak, aukerak eta zailtasunak.

Egoera aldatu nahi badugu, haiek ikusten, ulertzen eta nahi dutenaren arabera gertatuko da. Teknikariak lehen lan honetan hau guztia jaso beharko dute, baldin eta aldaketaren sustaizaile komunitatea bera izatea nahi badute. Haren jarreraren arabera prozesuak errazago egin dezake aurrera edo zailtasunez betea egon daiteke teknikarientzat.

Entzute-prozesu honetan —Marchioni (1997)— garrantzi handia izango dute familiarekin egingo diren hizketaldiek. Hizketaldi horiek modu libre batean ulertu behar dira, ez baitira elkarriketak. Teknikariak ezin du berak nahi dituen gaiak ukitu hizketaldi horietan, laguntzaile papera beteko du, eta ezin du erabaki zer den garrantzizkoa eta zer ez. Lana betetzeko presarik ez dezala izan eskatu behar zaio.

Ekintza honen bidez, bi prozesu garatzen dira: batetik, datuak objektiboki biltzea, eta, bestetik, subjektiboki, komunitatearen ezagutza soziala eta gizatiarra. Datu objektiboen emaitza ulertzeko, azalpen soila baino ez da eskatzen; ezagutza prozesu subjektiboan, aldiz, biztanleen egoera pertsonalak aztertu beharko ditugu, eta horretarako ulermena jorratu beharko dugu.


Familiarekin egindako hizketaldi hauek jarduera komunitarioaren abiapuntua izango dira. Horiei esker, komunitatearen alde fisikoak eta psikologikoak ikus ditzakegu. Alde batetik, etxebizitza, altzariak, higiene arazoak... ikusiko ditugu; bestalde, alderdi psikologikoak aztertuta koan ikus dezakegu familiaren jarrera zein den komunitatearen eta arazo komunaren aurrean, eta aldaketa bultzatzeko orduan.

Lan honekin, datuak jasotzeaz eta komunitatea ezagutzeaz gain, komunitateak bere baitan hartuko gaituen neurtzen ari gara. Horretarako, hizketaldi horiek familia guztiekin egin beharko genituzke, eta horrela egiterik ez balego, familien lagin handi batekin. Familien harrera ona izanez gero, komunitatearen onespina etorriko da.

Aldaketarako prestatzen ari garelako, hizketaldiekin hasi baino lehen, komeni da bilera batera deitzea. Komunitatearen partaide guztientzat izango da deialdia, eta ohiturak aldatzen hasteko lehendabiziko pausoa izango da. Aldaketak prestatzen ari garenez, hizketaldiak hartu behar ditugu horren abiapuntutzat. Gainera, hizketaldietan plazaratzen diren arazoaren taulak, gero, lan plangintza prestatzeko balioko digu.

Marchioni-ren arabera (1997), hizketaldietan honen inguruko datuak bilduko ditugu:

1. Etxebizitza.
2. Familia (osatzen dutenen adina eta generoa).
3. Enplegua.
4. Heziketa eta eskolaratzea.
5. Osasun- eta higiene-egoera.
6. Norbanakoaren eta familiaren arazoak.
7. Talde-arazoak.



2.3. LEHENENGO ESKU-HARTZEARENA

Gero antolatuko ditugun ekintzen arrakasta, neurri handi batean, lehenengoan oinarrituko da. Esku-hartzearen mugak, orokorrean, lehen ekintzaren arabera izan daitezke —Marchioni (1997)—. Hasierako arrakastak jardueraren ibilbidea erraztuko digu. Hala ere, horrek ez du esan nahi gaizki hasitakoak gaizki bukatu behar duenik; baina, dudarik gabe, ondorengo esku-hartzearen arrakasta edo porrota finka dezake.

Arazo eta eragozpenen aurrean komunitatearen jarrera ezagutu behar dugu, nahitaez. Horregatik, jardueran komunitateak arazoei aurre egiteko duen gaitasuna ezagutu behar dugu, lehen esku-hartzea antolatu baino lehen.


Normalean, hasiera batean, biztanleek mesfidantza eta interes eza azal ditzakete. Mesfidantza eta interes eza, ezer egiteko inolako aukerarik ez dagoela uste dutelako, eta gauzak ezin

dira aldatu pentsatzen dutelako: gauzek diren moduan izaten jarraituko dute, eta hobetzeko saio guztiak ez dira urrutira joango.

Mesfidantza eta interes eza jarrera baten adierazle baino ez dira. Giza jarduera hobetzeko bidea dela erakusten saiatzen bagara, beste harrera egingo diote lehen ekintzari. Behin ulertuz gero egoeraren aldaketak hobekuntza dakarrela, haien interesa areagotu egingo da. Aldaketa eta ekintza bateragarri direla sentitu behar dute, eta, horrela, giza jardueraren garrantzia nabaritutako dute.

Gizarte-langileen eta biztanleen elkarlanean oinarrituta aldatu daiteke jarduera. Elkarlanean eskutik aldaketa gertatuko da. Lehen ekintza honetan, ziur aski, eragile guztiak ez dira azalduko. Gizarte-langileak kontuan hartu beharko du oraindik aktore guztiak ez direla taularatu; benetako liderrak ziurrenik oraindik azaltzeke egongo dira. Horiek emaitzen zain geratuko dira eta, emaitzen arabera, azalduko dira edo ez.

Beraz, aldi hau tentsio handikoa izan daiteke. Jakin badakigu, emaitza onak izanez gero, komunitatearen liderrak alde jar daitezkeela, eta horrek izugarritzko bultzada emango liokeela jarduerari. Emaitza onak eta liderren agerpena, batera joateaz gain, giza jardueraren berme bihurtzen dira.



Lehen ekintzak honako baldintzak bete beharko ditu:

1. Lehen ekintza jendeak inkestan azalduko irizpideen arabera antolatuko dugu. Horrela, ekintza horrek guztien edo gehienen nahiak bete beharko ditu, eta komunitateak komunean dituen bizitzaren atalak jorratuko ditu: guztien edo gehienen interes-guneak landuko ditu. Interes-guneek errealitatetik eta beharretatik gertu jarriko gaituzte, eta, aldi berean, ekintzaren berme bihurtuko dira.
2. Lehen ekintza erraza izango da. Zailtasun handiko ekintzak antolatuz gero, akatsak eta buruhausteak sor daitezke. Une honetan horrelako egoera ez da batere aproposa, prozesuaren sorreran baikaude eta jendearengan eragina izan baitezake. Nahi eta nahi ez ziurtatu behar ditugu aldeko emaitzak, alderantzizkoa kaltegarri izan bailiteke; izan ere, oraindik jendea ez da prest egongo horrelako egoerak gaintzeko.
3. Lehen ekintzak ahalik eta jende gehien bildu behar du. Jende kopuru handiena lortzeko, ekintzak berak jendearen parte-hartzea ziurtatu behar du. Ekintzak aukera guztiak eman beharko ditu jendeak parte har dezan. Beraz, aurreko baldintza gogoratu, erraztasuna eta parte-hartzea lehen ekintza honen oinarriak izango dira. Zenbat eta jende gehiago aritu ekintzan, orduan eta arazo gutxiago helburuak betetzeko.

2.4. OHIKO ESKU-HARTZEARENA

Aldi honetan komunitatea bera prozesuaren gidari bihurtuko da. Haren baitan dauden taldeek, lehen zalantzak eta mesfidantza saihestu ondoren, beren proiektuak jarriko dituzte abian eta lanean hasiko dira buru-belarri.

Gauzak horrela, egoera honetan hiru ezaugarri bereizten ditu Marchioni-k (1997):

1. Hemendik aurrera gizarte-langileek beste paper bat jokatu beharko dute prozesuan eta beren betebeharrak guztiz aldatuko dira.
2. Komunitatearen taldeak lanean hasiko direnez, ekintza bat baino gehiago garatuko da.
3. Egoera aprobetxatuz, garapenerako plangintza orokorra lortzeko saioa bultzatuko da.

2.4.1. Gizarte-langileen betebeharra

Hemendik aurrera, gizarte-langileen lana biztanleen ekimenaren arabera aldatuko da. Garapena beren eskuetan geratzen dela ulertzen dutenean, biztanleak gizarte-langileen lana mugatzen hasiko dira. Horrela, gizarte-langileen funtzioaren garrantzia txikitzen den heinean, komunitatearen parte-hartzaileena handitu egingo da. Balantza baten antzera, parte-hartzearen ikuspegitik, alde batekoa gora joango da, eta bestekoa, aldiz, behera.

Gizarte-langileek ezin izango dute hemendik aurrera komunitatearen ekimena ordezkatu, komunitatearen helburuak lortzeko ahalik eta babes gehien ematea izango baita haien lana. Babes emate horretan gai teknikoan aholkularitza, laguntza teknikoa eta koordinazioa hartuko dituzte bere gain gizarte-langileek. Horrekin batera, esan beharra dago gizarte-langileak ez dizkiola komunitateari arazoak konponduko; hori komunitateak berak egin beharko du, gizarte-langileari bidea erraztea eta ekimena suspertzea baino ez dagozkio eta.

Taldeak sortzen eta elkarteak biziberritzen badira, harremanetarako bestelako giroa sortzen da, eta prozesuak aurrera egin dezake. Gizarte-langile eta biztanleen artean konfiantza sortu delako gauzatu ahal izango da hori guztia. Lehen ekintzako mesfidantzatik aldaketaren egileen arteko konfiantza girora pasa gara, eta, horrekin batera, ekintza bakar batetik, taldeen eta elkarrekin ekimena dela medio, hainbat ekintzatarra.

2.4.2. Jarduera abian jartzen da

Une honetan garrantzizkoena da hainbat ekintza abian direla, eta horiek zerikusia dutela beren artean. Ekintza eta aktibitateak sakabanatu ez daitezen, ikuspegi orokorrarekin antolatu beharko dira. Horrek lan koordinatua eskatuko du, denbora alferrik ez gastatzeko eta gauza bera ez errepikatzeke.

Lehen koordinazioa gizarte-langileen betebeharretariko bat zela esan badugu ere, azpimarratu behar dugu hori ez dela bakarrik haien eskuetan geratuko. Hainbeste ekintza koordinatzeko, derrigor, komunitatearen partaidetza beharrezkoa egingo da, eta hari ere egokituko zaio koordinazio lana. Horretarako, jarduera orokortasunean bermatzeko, egokia da Biztanleen Komitea sortzea. Komiteak koordinazio lana hartuko du bere gain, eta, horrezaz gain, ekintzen bilakaera jarraituko du.

Komite hori antolatzeko bide zuzenena komitearen estatutuak erabakitzea da, komunitatearen partaide guztien botoa kontuan hartuta. Estatutu horiek Komitea kudeatzeko balioko dute. Komitea hainbat batzordez osatua egongo da, eta jardueraren ikuspegi orokorra izango du: batzordeek ekintzen egoerari buruzko informazioa emango dute eta prozesuan betetako pausoak ere argituko dituzte.




2.4.3. Komunitatearentzako plangintza

Komunitateak egoera, arazoak eta irtenbideak aztertuko ditu, Biztanleen Komitearen bidez. Une honetan komunitateak bere burua aztertu beharko du, eta bere garapenak nondik nora jo behar duen erabakiko du. Garapenaren etorkizuna planifikatzen hasiz gero, Marchioni-ren arabera (1997), auto-azterketak bi atal jasoko ditu: azterketaren unek eta azterketaren ikuspuntuak.

Auto-azterketaren unek, egile horren arabera, honako atal hauek izango ditu:

1. Egungo egoera.
2. Egoeraren zergatiak eta hobetzeko aukerak.
3. Garapenaren etorkizuna



Auto-azterketaren ikuspuntuak, aldiz, hauek izango dira:

1. Nekazaritzaren arazoak eta aukerak.
2. Komunitatearen osasun eta higiene egoera.
3. Heziketaren eta eskolaren arazoak
4. Lanbide- eta helduen heziketaren arazoak.
5. Kultur, arte eta artisau ekintzak.

2.5. ESKUALDEKO ESKU-HARTZEARENA

Gizarte-langileek emaitzak komunitatetik kanpo zabaltzen dituztenez, ekintzen berria zabaldu egiten da. Horrek ondoko komunitateekin harremanetan jartzea ekar dezake, eta, horrela, jardueraren eragina beste nonbaiten ere ikus daiteke. Horri Marchioni-k (1997) eremuaren zabalaketa deitzen dio.


Praktika horretan komunitate baten arazoak eskualdeko beste komunitateekin batera konponduko dira. Nahiz eta emaitzak zabaldu, eremu zabaltze hori ez dute gizarte-langileek egiten, komunitatean aurrera eramandako esperientziak baizik. Hasieran, ezin dugu esperientzia osoa besteekin partekatu; prozesu osoaren zati bat baino ez da zabalduko, aurrerago beste arazo eta atal batzuk ukitzeko.

Ildo horretatik, komunitate bakoitzak dituen garatzeko aukerak modu naturalean zabaltzen dira ondoko komunitateetan. Eskualdean sortzen diren mugimenduak eta ekintzak komunitate batetik bestera pasa daitezke erraz asko; azken batean, ondokoaren garapena atzeratuago dagoenarentzat ere onuragarri izan daiteke. Gauzak horrela, pentsa daiteke garapenaren oinarrian besteekin esperientziak partekatzea baino ez dagoela.

Hala ere, eskualdea gara dadin, kontu handiz aukeratu beharko dugu zein den eskualdearentzat eta komunitate bakoitzarentzat garapenerako bitartekoa. Lehen komunitatean Biztanleen Komitea antolatu dugun bezala, oraingoan Komunitateen arteko Komitea sortuko da eskualdean. Komite horrek erabakiko du zein den esku-hartzeko atala, eta, horrekin batera, bideratu behar diren ekintza komunak eta proiektuaren koordinazioa.

Komite horretan komunitate guztien taldeak eta erakundeak egongo dira. Izan ere, horrela, aldaketa aukeratzeko eta erabakiak hartzeko parte-hartze demokratikoa bermatuko da; behetik gorako parte-hartzea, alegia.

Komunitateen arteko komitean Batzorde Teknikoaren eta erakunde publikoen parte-hartzeak berebiziko garrantzia izango du. Alde batetik, Batzorde teknikoak arazoak aurreikusi eta ekintzarako baliabideak prestatuko ditu; bestetik, erakunde publikoen laguntzarekin —baliabide tekniko, finantzario eta administratiboak—, hartutako erabakiak gauzatu ahal izango dira.



«Zenbat eta sustraituago egon nire herrian, orduan eta aukera handiagoak ditut luze eta zabal azaltzeko, munduko hiritar sentitzeko. Inor ez da herri batekoa egiten unibertsaltasunetik. Bizi-norabidea alderantzizkoa da.»

PAULO FREIRE

*Esku-hartze
komunitariarentzako
baliabideak*

3

AURKIBIDEA

3. ESKU-HARTZE KOMUNITARIOARENTZAKO BALIABIDEAK	39
3.1. Informazioa	41
3.2. Ikerketa	43
3.3. Dokumentazioa	44
3.4. Koordinazioa	45
3.5. Planifikazioa	47
3.6. Ebaluazioa	48
3.7. Formazioa	50

3.1. INFORMAZIOA

Esku-hartzean gertatzen ari dena zabaldu nahi denean, aldez aurretik jakin behar dugu informazioa teknikarientzat betebeharra izango dela, eta erabiltzaileentzat, aldiz, eskubidea. Informazio bera zabalduko da mundu guztiarentzat, nahiz eta, hori guztia hainbat forma eta hizkuntzatan izan; inportanteena edukia mantentzea izango da.

Hasieratik, garbi geratuko da komunitatearen edozein ekimenek publikoa izan behar duela, eta horretarako badira bi arrazoi: gero eta jende gehiago jardueran sartu ahal izatea, eta lanaren aurrerapenak azaltzea.

Informazioa ematerakoan, proiektuaren helburuak, egindako jarduera eta emaitzak azalduko dira. Informazio hau beti publikoa izango da eta ematerakoan ez da inor kanpoan utziko. Horren bidez, ezagupen guztien sozializazioa bultzatuko da, eta horretarako informazio-baliabide guztiak hartuko dira kontuan.

Informatzeko aukera guztiak aztertuko dira. Komunitatearen informazio-plangintzaren bidez jakingo dugu zer-nolako lana antolatu behar dugun, eta horrek zenbat balioko duen. Plangintza horretan azertu beharko dugu hainbat informazio-baliabidek eta elkarteen sareak ematen diguten aukera, non eta nola banatu informazioa eta zabaldu nahi dugun informazioa.

Zehaztu dugunean informazioaren edukia —helburuak, aukerak, arazoak eta emaitzak—, hurrengo pausoa informazioa zabaltzea izango da. Tokiak, taldeak eta elkarteak erabakiko ditugu, ekintza honekin beste helburu bat lortu nahi baita: garapenaren egileak eta informazioaren banatzaileak berberak izatea.

Baliabideak aztertzen baditugu, bitan bereiziko ditugu: merkatuko informazio tresnak —bertako irratia, telebista eta egunkaria, baleude—, eta komunitateak berak sor ditzakeenak. Bigarren horietan garrantzi handia izango dute bai Baliabideen Gidak eta baita Komunitatearen Monografiak ere, baina, horiez gain, honako hauek erabili beharko dira:

1. Kartak, aktak eta dokumentuak.
2. Fitxategia.
3. Informazio orri orokorrak edo berariazkoak.
4. Egunkaria.
5. Kartelak.
6. Liburuxkak eta triptikoak.
7. Panfletoak eta esku-paperak.

Monografiak —Marchioni (1999)—, berriz, honako hauek azalduko ditu:

1. Oinarrizko egitura:

- Lurraldea eta Urbanismoa.
- Biztanleak.
- Ekonomia.
- Historia.
- Elkarteak.

2. Sektoreak:

- Heziketa.


- Osasuna.
- Kultura, aisialdia eta kirolak.
- Asistentzia-zerbitzuak.
- Lanbide-zerbitzuak.

3. Biztanleak:

- Haurtzaroa.
- Gazteria.
- Helduak.
- Zahartzaroa.

4. Bestelako gaiak:

- Hiritarren segurtasuna.
- Eskola-porrota.
- Langabezia.
- HIESA.
- Sexu-heziketa.
- Toxikomaniak.
- ...



Baliabideen Gida ari gara abian jartzen, bestalde, dagoenaren eta ez dagoenaren deskripzioa —pertsonak, taldeak, erakundeak, instituzioak, komunikazioak, azpiegiturak...— egiten dugunean. Behin azterketa egin eta gero, gida hori gauzatu eta komunitateko familien artean banatu ahal izateko, gida erdua nolakoa izango den, zenbat egingo ditugun, nola banatuko ditugun eta dakartzan gastuak finkatuko ditugu.

3.2. IKERKETA


Komunitatearen alde aipagarrienak sakon aztertu ahal izateko, nahi eta nahi ez ezagutza, datuak eta informazioa jaso behar ditugu. Arazo batek askotan eragina izan dezake komunitatearen jarreran edo komunitateak berak aldeztu aurretik hartu du erabakia hainbat arazoren aurrean. Hau guztia ikus dezagun beharrezkoa da asmatzea zeintzuk diren ikuspuntu, gai eta arazo horiek; eta ikerketa baino modu hobea ez dago hori gauzatzeko.

Jarduera hobetzeko ikerketak eduki zientifikoa izango du, honek ahalbidetzen baitu jarre-
rak, ikuspuntuak eta arazoak marko teoriko batean sartzea. Horretarako, ikerketa elkarteekin ha-
rremanetan egotea probetxugarri izango da, hauen eskutik baliabide teknikoak eta zientifikoak
eskura ditzakegu eta. Ikerketa elkarteak komunitate barrukoak zein kanpokoak izan daitezke.
Ildo horretatik, Unibertsitateak eta bere ikerketa taldeek aukera polita ematen dute harremanetan
jartzeko.

Marchioni-ren ustez (1997), entzute-prozesuak interesgarriak izango dira ikerketa ekintze-
tan komunitatearen abiapuntua markatuko baitute. Beti galdetegirik gabe egingo dira, eta parte-
hartzaileen eta ikerlarien arteko harremana sortzeko balioko dute. Egiteko moduaren arabera,
taldeka edo banaka egindakoak izan daitezke; pertsonen aldetik, biztanle arruntei edo lekukoei
eginak, eta entzuteen aldetik, orokorrak edo berariazkoak.

Marchioni-k lau pauso proposatzen ditu entzute-prozesuak aurrera eramateko:

1. Taldearen sorkuntza eta formazioa.
2. Elkarrizketak dokumentatzea eta gauzatzeko.
3. Materialen tabulazioa eta ekoizpena.
4. Informearen idazketa eta argitalpena.



3.3. DOKUMENTAZIOA

Dokumentazioak ere, informazioaren gisa, publikoa izan beharko du. Taldearen interesekoa delako, dokumentazioak ez du inolako sekreturik gordeko, eta aztertuko den errealitatearen eta lanaren arabera izango da. Batik bat, bi atal jorratu beharko ditu: esku-hartzearen planifikazioa denboran zehar, eta lanaren antolaketa.

Besteak beste, dokumentazioak berebiziko garrantzia du:

1. Lana modu zientifikoan erakusteko.
2. Komunitatea informatu ahal izateko.
3. Jarduera berriro ikertu ahal izateko.
4. Lanaren ebaluazioa egiteko.
5. Hurrengo lanak planifikatu ahal izateko.

Eta hori guztia gerta dadin, dokumentazio-sistemak esku-hartzearen honako atal hauek hartuko ditu kontuan:

1. Denbora-alderdia: aurrekontu-urtea kontuan hartuta, hiruhilabetekoa.
2. Giza alderdia: intereseko edozein ekimen eta arazo.
3. Lan-alderdia: prozesuaren garapena erakusteko jardunaldiak, ekimenak, ekintzak...
4. Antolaketa-alderdia: lan-taldeak, lan-mintegiak, barne-bilerak...

Bestalde, dokumentazio-eredu zehatzik ez dagoenez, erabiliko dugun dokumentazio sistema prozesuari erabat lotuta egongo da, eta Marchioni-k (1999) *komunitatearen fitxategia* proposatzen du sistemaren lagungarri. Fitxategi horrek pertsonen, baliabideen, elkarteen eta elkar-guneen fitxak jasoko ditu.

1. Pertsonen fitxa:

- Izen-abizenak.
- Ordezkatzen duen elkarte edo zerbitzua.
- Helbidea.
- Data eta erlazioaren motiboa.

2. Baliabideen fitxa:

- Baliabide edo zerbitzuaren izena.
- Helburuak eta esku-hartze esparrua.
- Giza baliabideak.
- Helbidea/Telefonoa/Faxa/Posta elektronikoa.
- Arduradunaren izena eta harremanetarako pertsona.
- Data eta zerbitzuarekin izandako harremanaren motiboa.


3. Elkarteen fitxa:

- Elkartearen izena.
- Helburuak eta esku-hartze esparrua.
- Baliabideak.
- Helbidea.
- Presidente edo ordezkariaren izena eta harremanetarako pertsona.

4. Elkarguneen fitxa:

- Izena.
- Helbidea.
- Harremanetarako pertsona.
- Zerbitzua bada, lauki batez adieraziko dugu fitxan; eta, elkarte bada, biribil batez. Horrekin batera, koloreko fitxak erabiliko ditugu:

- Berdea: kirolak, kultura, aisialdia.
- Urdina: heziketa.
- Marroia: lanbide-zerbitzuak.
- Gorria: osasuna.
- Goria: asistentzia-zerbitzuak.
- Zuria: zerbitzu orokorrak (udaletxea, epaitegiak...) eta auzo- elkarteak.



3.4. KOORDINAZIOA

Lan hau beti teknikari profesionalek gauzatuko dute, ez baita boluntarioen lana; eta esan daiteke koordinaziorik gabe ez dagoela esku-hartzerik. Alde batetik, zerbitzuak eta teknikariak koordinatuko dira, eta, bestetik, baliabideak, publiko zein pribatu izan —horiek irabazi-asmorik gabekoak, jakina—, eta boluntarioak.

Hasieratik Batzorde Teknikoa sortuko da, eta honako hauek osa dezakete: gizarte zerbitzuetako teknikaria, oinarrizko laguntza medikuetako teknikaria, eta Hezkuntzako teknikaria. Batzorde horrek bilera gutxi egingo ditu, baina horretarako, alde aurretik, partaideen artean informazio trukaketa egongo da, eta erabiliko duten informazioa guztiontzat berdina izango da. Gainera, taldearen koordinatzailea izendatuko da, eta bere lana lan bileren laburpena egitea izango da, jarraian informazio hori gainontzeko partaideei igortzeko.

Batzorde horren betebeharren artean, besteak beste, hiru mailatako administrazioekin —herrikoa, erkidegokoa eta estatukoa— harremanak izatea egongo da. Horrezaz gain, argitu beharko du zerbitzuen artean zer-nolako prestazioak ematen diren, batek ez baitu bestea beti ziurtatuko. Azkenik, lurraldearen antolaketa gogoan edukiz, bere lan esparrua finkatuko du, funtzionatzeko zehaztu behar baititu koordinazioaren esparru funtzionala eta operatiboa.

Bestalde, koordinazioak atal hauek jorratuko ditu:


1. Helburuak. Zehaztu beharko du nola gauzatu behar diren:

- Komunitatearen Gizarte Zerbitzuen plangintza.
- Sektore bakoitzeko programen garapena.
- Komunitatearen parte-hartze eta animazio-programa.

2. Esku-hartzearen esparruak. Koordinazioak finkatu beharko du zein den esku-hartzearen lurralde operatiboa. Zuzenena izango da udalerritik hastea, hortik auzokoetara edo bestelako gunetara pasatzeko. Lanean landa-lurralde batean ari bagara, hobe da eskualdea kontuan hartzea, sakabanaketa gainditzeko, eta jarduera bertako guneretatik inguruko herrietara zabaltzea.

3. Faseak:

- Lurraldearen zerbitzu bakoitzaren informazioa zabalduko da partaideen artean.
- Gizarte-eskaeren azterketa egingo da eta helburu komunak finkatuko dira.
- Esku-hartzearen sektoreak ezagutuko dira.
- Sektore bakoitzean esku-hartzearen jarraipena egingo da.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuen plangintza zehaztuko da.



3.5. PLANIFIKAZIOA


Esku-hartzea planifikatzeko denbora-tarte egokiena urtebetekoa izango da. Hala ere, horrek ez du esan nahi epe luzeagoekin ezin denik jokatu; hainbat kasutan planifikazioa/programazioa 3 edo 4 urtekoa izan daiteke. Urtebeteko epea hartu ohi da, batik bat, esku-hartzearen plan-teamenduak berrikusteko eta epe motzeko emaitzak ebaluatu ahal izateko. Honela, hau guztia egin eta gero, berriro modu egokian planifikatu baitaiteke.

Planifikazioak baliabideak zentzuz erabiltzeko balioko digu eta helburu jakin batzuk lortu ahal izateko. Azken batean, planifikazioak baliabideen erabilera orekatuan lagunduko digu, eta horien erabilpen egokia esku-hartzearen helburuak ziurtatzeko izango da beti. Esku-hartzearen helburu orokorrak eta planifikazioarenak berdinak izango dira, eta, ildo horretan, arlo eta sektore desberdinen programak antolatuko ditu planifikazioak.

Beraz, planifikazioa sektore desberdinetako esku-hartzearen lan-metodoa eta baliabidea izango dugu. Lan-metodo horri esker, saiaturko gara baliabideak modurik egokienean erabiltzen, horiek ez direlako agortezinak, gehienetan, urriak baizik.

Planifikazio egokia egiteko, honako atal hauek bermatu beharko ditugu:

1. Baliabideen koordinazioa.
2. Komunitatearen azterketa.
3. Lehentasunen hautaketa.
4. Edukiak eta parte-hartzaileak.
5. Talde komunitarioa.
6. Etengabeko ebaluazioa.



Hori guztia ziurtatu eta gero, planifikatzeko erabili nahi dugun metodologia finkatuko dugu. Horretarako, esku-hartzearen objektua finkatuko dugu, eta gero, ebaluazioa finkatzeaz gain —hiruhilabeteen eta urtean behin—, metodologian zein atal landuko ditugun zehaztuko dugu.

Planifikazioan erabilitako metodologiak gutxienez atal hauek jorratu beharko lituzke:

1. Helburu orokorrak.
2. Hasierako diagnosia.
3. Helburuak: epe motzekoak, epe ertainekoak, epe luzekoak.
4. Baliabideak eta administrazioen parte-hartzea.
5. Erabiltzaileen zehaztapena.
6. Baliabideen gida.
7. Talde komunitarioaren eraketa.
8. Ekintzen zehaztapena.
9. Prozesuaren informazioa.

3.6. EBALUAZIOA

Ebaluazioa era dialektiko eta dinamikoan ulertu behar dugu, eta, giza jarduerak ez duelako behin-betiko emaitzarik lortzen, ebaluazioak ez ditu emaitza positiboak bakarrik kontuan hartuko. Gainera, ahaleginduko gara ebaluatzeko baliabide nahikoak izaten, eta horrela ebaluatu ahal izango ditugu, alde batetik, ekintzak eta helburuak, eta, bestetik, arazoak eta eragozpenak.


Esku-hartzean teknikarien, komunitatearen eta administrazioaren lana ebaluatuko dugu, baina, aldeaz aurretik, horien jarduera baino lehenago zegoena ere ebaluatuko dugu. Aurretiazko dokumentazioa, helburuen zehaztapena eta arazoaren diagnosi egokia lan horretarako laguntza handikoak izan daitezke, lehenik eta behin, ebaluaketarako oinarri sendoak lortu behar baitigu.

Merino Fernández-en arabera (1997), ebaluazioa honako lau fase hauetan banatzen da:

1. Diagnostikoaren ebaluazioa:
 - Proiektuaren ezaugarriak edo justifikazioa.
 - Proiektuaren oinarriak: teorikoa, diagnostikoa, juridikoa, lehentasunak...
2. Diseinuaren ebaluazioa:
 - Informazioa/parte-hartzea.
 - Planifikazioa.
 - Ebaluazioa.
 - Aurrekontua.
3. Gauzatzearen ebaluazioa.
4. Emaitzen ebaluazioa eta bukaerako ebaluazioa.

Horrekin batera, ebaluazioak hainbat betebeharrak eskatzen ditu. Adibidez:

1. Ebaluazioaren prozedura erabaki:
 - Auto-ebaluazioa edo kanpoko.
 - Nor diren ebaluazioaren hartzaileak.
 - Nor eta zer ebaluatu: edukiak, antolakuntza, teknikariak, hartzaileak, elkarteak...
 - Zein ikuspegi ebaluatu: eraginkortasuna, emankortasuna, estrategiak, kudeaketa, pertsonak...
2. Ebaluazioaren helburuak zehaztu: horrekin ziurtatuko dugu ebaluatzean lortu nahi dugun informazio maila.
3. Erakusleak finkatu: aurrerapenak neurtzeko, ebaluatzeko neurri estandarrak finkatuko ditugu.
4. Erreferentziazko markoak zehaztu: emaitzak baloratu ahal izateko hainbat paradigma —kontzeptualak, sozialak, ideologikoak, arauzkoak...— erabiliko ditugu.
5. Berrelikatzeko bideak ireki: feed-back sistema egon dadin, ebaluazioaren informazio-erabilera egokia landuko da.



Bestalde, behin ebaluazioa bukatuz gero, bukaerako txostenean prozesu osoa sistematizatu uztea komeni da: prozesu bera, emaitzak eta ondorioak jasoko ditugu bertan. Ebaluazioaren jarraipen gisa ulertu behar da bukaerako txostena, bertan jasotzen denarekin ebaluazioaren erabilera ahalbidetzen dugulako.

(Gloria PÉREZ SERRANO: *Elaboración de proyectos sociales. Casos prácticos*: 1993.)

«Ikerketa honen helburua da lortutako emaitzak gainontzeko pertsoneri jakinaraztea, haiek egiazta ditzaten. Bertan denboran zehar prozesua nola gertatzen den adierazi behar da, horregatik hobe da prozesuaren hasieratik kontatzea, eta ez itxarotea azken txostena egin behar den unera arte.

»Txostenean egin denaren zerrenda, datak, egoerak sartu behar dira: nola gauzatu diren proiektuaren atalak eta sortu diren zailtasunak. Garrantzizkoa da lorpenekin batera azpimarratzea aurkitutako oztopoak [...].


»Bukaerako txostenak, jarraitutako prozesua sistematizatzeari gain, giza arloko arazo-ebazpenetan dabilzan beste pertsona eta talde interesatuekin komunikatzen eta esperientziak trukatzeko laguntzen du.»

3.7. FORMAZIOA

Esku-hartze komunitarioak ezagutza teknikoa eta zientifikoa behar du, eta, horrekin batera, baliabideen antolaketa zientifikoa. Jarduera komunitarioa aurrera eramateko lan dokumentatua, arrazoitua eta ebaluatua beharko dugu. Beraz, lan-taldea izango da formazioaren lehen urratsa, bere barnean formazioaren lehen maila gertatuko baita.

Lan-taldeaz gain, formazioa komunitatearen gainontzeko kideei ere helaraziko zaie, beste maila batean bada ere, horrela egoera egokienean parte har dezaten esku-hartze komunitarioaren proiektuan. Hori guztia aurrera eramateko, hasiera batean, liderrak eta jarrera bereziko pertsonak aukeratu behar dira.

Hala ere, formazioa ez da bi maila horiekin bukatuko, eta, Ander-Egg-ek esaten duen bezala (1997), *arrazoiaren erabilpen kritikoa eta ilustratua garatzen eta ezagutza eskuratzen laguntzen duten ekintzak* antolatuko dira. Besteak beste, honako hauek izan daitezke:




Haren ustez, animazioa eta heziketa txanpon baten bi aldeak dira. Heziketa iraunkorrek etengabeko gaitasuna ahalbidetzen duen bitartean, Gizarte eta kultur animazioak axolagabetasun jarrera azaltzen dutenei ikasteko laguntza ematen die. Horrela, jarrera aldatuta, heziketa iraunkorrek eskatzen duen ahalegina errazago ulertuko dute.

Laburbilduz, egile horrentzat formazioa oinarritzakoa da:

1. Bizimodua aldatu ahal izateko.

2. Giza kontzientzia sortzen laguntzeko.
3. Elkartasuna eta parte-hartze eraginkorra sustatzeko.



Bibliografia

4

- ANDER-EGG, EZEQUIEL: *Metodología y práctica de la animación-sociocultural*, Buenos Aires: Lumen/Humanitas argitaletxea, 1997.
- CEMBRANOS, FERNANDO; MONTESINOS, DAVID; BUSTELO, MARÍA: *La Animación Sociocultural: una propuesta metodológica*, Madril: Popular argitaletxea, 1988.
- DESCARTES, RENÉ: *Discurso del método*, Madril: Espasa-Calpe argitaletxea, 1986.
- FEYERABEND, PAUL: *Tratado contra el método*, Madril: Tecnos argitaletxea, 1986.
- FREIRE, PAULO: *A la sombra de este árbol*, Barcelona: El Roure argitaletxea, 1997.
- MARCHIONI, MARCO: *Planificación social y organización de la comunidad*, Madril: Popular argitaletxea, 1997.
- MARCHIONI, MARCO: *Comunidad, participación y desarrollo*, Madril: Popular argitaletxea, 1999.
- MERINO FERNÁNDEZ, JOSÉ V.: *Programas de animación sociocultural. Tres instrumentos para su diseño y evaluación*, Madril: Narcea argitaletxea, 1997.
- NOGUEIRAS, LUIS M.: *La práctica y la teoría del Desarrollo Comunitario*, Madril: Narcea argitaletxea, 1996.
- PÉREZ-CAMPANERO, M.^a PAZ: *Cómo detectar las necesidades de Intervención Socioeducativa*, Madril: Narcea argitaletxea, 1994.
- PÉREZ SERRANO, GLORIA: *Elaboración de proyectos sociales. Casos prácticos*, Madril: Narcea argitaletxea, 1993.

